EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
*Gizarte Komunikazioko Zuzendaritza*

**PRESIDENCIA**
*Dirección de Comunicación Social*

XII. Legegintzaldia - XII Legislatura
2020-2024

# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoak 26**

**Vitoria-Gasteiz, 26 de marzo de 2023**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Lehendakaritza**

## HILABETE BATEAN, 4.371 GAZTEK ESKATU DA DAGOENEKO EMANTZIPA PROGRAMAREN LAGUNTZA GAZTEEN EMANTZIPAZIOA ERRAZTEKO

- **Eskatzaileen % 52,2 Bizkaikoak dira, % 33,7 Gipuzkoakoak eta % 14,1 Arabakoak**
- **% 71,9 alokairuan emantzipatu egin dira edo egingo dute, eta gainerako % 28,1 erosteko etxebizitza batean**
- **Eskaeren % 60,9 emakumerenak dira, eta % 39,1 gizonenak**
- **Lortutako erantzuna oso positiboa da. Egindako aurreikuspenekin bat dator. Ez da gorabehera negatibo nabarmenik gertatu**
- **25 eta 29 urte bitarteko gazteen emantzipazioa erraztera bideratuta dago Eusko Jaurlaritzaren laguntza**
- **Hilean 300 euro ordaintzea da, gehienez 24 hilabetez, betiere gastu bat egiaztatzen bada**
- **Eskabidea aurkezteko biderik zuzenena www.euskadi.eus/emantzipa da**

http://www.euskadi.eus/emantzipa

Hilabeteko epean, 25 eta 29 urte bitarteko 4.371 pertsonak eskatu dute gazteen emantzipazioa bultzatzeko Emantzipa programako laguntza berria. Prestazio hori hilean 300 euro ordaintzean datza, gehienez 24 hilabetez, betiere etxebizitza libre baten alokairuaren, hipotekaren edo mailegu pertsonalaren gastua egiaztatzen bada.

Gaur goizean, Iñigo Urkullu Lehendakariak aurkeztutako eskaerei buruzko datu nagusiak aurkeztu ditu Gobernu Kontseiluan. Eskaera egiteko epea joan den otsailaren 20an ireki zenetik, guztira 4.371 eskabide aurkeztu dira. Horietatik, eskatzaileen % 52,2 Bizkaikoak dira, % 33,7 Gipuzkoakoak eta % 14,1 Arabakoak.

Eskaeren % 60,9 emakumerenak dira, eta % 39,1 gizonenak. Datu hori koherentea da azken hamarkadan emakumeen emantzipazio-tasan ikusten den hamar puntuko aldearekin.



Aurkeztutako eskabide guztietatik ondorioztatzen da eskatzaileen % 71,9 alokairuan emantzipatu egin dela edo egingo duela, eta gainerako % 28,1 etxebizitza erostean.




Udalerriei dagokienez, 1.075 eskaera Bilbon emantzipatuko diren gazteek egin dute, 548 Donostian, 515 Gasteizen, 182 Barakaldon eta 118 Getxon.




Emantzipa laguntza beste prestazio batzuekin bateragarria da; hala ere, gazte eskatzaileen % 60,9k ez dute beste laguntzarik jasotzen emantzipatzeko. Beste laguntza batzuen onuradunen artean, alokairuan emantzipatzen diren pertsonen % 47,5 Gaztelagun programaren onuradun ere badira.




Aurkezteko moduari dagokionez, eskabideen % 94,4 telematikoki aurkeztu dira, eta % 5,6 aurrez aurre.

Azkenik, eskatzaileek 19.000 euroko diru-sarrerak dituzte batez beste, eta, zehazki, salerosketan emantzipatzen direnek 21.000 euroko diru-sarrerak dituzte batez beste, eta errentamenduan emantzipatzen direnek, berriz, 19.000 euroko diru-sarrerak urtean.

Orain arte lortutako erantzuna oso positiboa da. Egindako aurreikuspenekin bat dator. Ez da gorabehera negatibo nabarmenik gertatu. Diseinatutako aplikazioa eta kudeaketa-operatiboa behar bezala funtzionatzen ari dira.

## Eskaerak eta kontsultak

Interesa duten gazteek modu errazenean aurkeztu ahal izango dute eskabidea, www.euskadi.eus/emantzipa helbidean. Zalantzarik izanez gero, jar zaitezte harremanetan Gazteria Zuzendaritzarekin, 945 015 591 telefono-zenbakira deituz edo mezu bat bidaliz honako helbide honetara: emantzipa@euskadi.eus

Halaber, GAZ Emantzipaziorako zerbitzuaren laguntza izan dezakete, online, EMANTZIPA kanalaren bidez, whatsapp bat bidaliz 646 109 126 zenbakira edo mezu elektroniko bat bidaliz gaz@euskadi.eus helbidera; edo aurrez aurre, Bilboko (La Perrera) edo Barakaldoko GAZ bulegoetara hurbilduz.mailto:gaz@euskadi.eus

**Segurtasuna**

**2024KO URTARRILAREN 1ETIK APIRILAREN 21ERA ARTEKO ALDERDI POLITIKOEN FUNTZIONAMENDU ARRUNTA FINANTZATZEKO DIRULAGUNTZA ONARTU DA**

- **Aurrekontuek 4.536.000 euroko kontu-saila aurreikusten dute guztira 2024rako, eta bi ordainketa-agindutan banatuko da, apirilaren 21eko hauteskundeen ondorengo alderdien ordezkaritzara doitu ahal izateko**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten alderdi politikoei edo koalizioei funtzionamendu arrunteko gastuak finantzatzeko ematen zaizkien dirulaguntzen lehenengo ordainketa. 2024ko urtarrilaren 1etik apirilaren 21era bitarteko aldiari dagokiona da. Zenbatekoa 1.388.065,57 eurokoa da, eta banaketa kalkulatzeko Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan bototan eta eserlekutan izandako emaitzak hartzen dira kontuan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan 4.536.000 euroko kontu-saila izendatu da 2024rako. Datorren apirilaren 21erako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deitu direnez, ekitaldi honetan bi alditan ordainduko da dirulaguntza: lehenengoa 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko apirilaren 21era artekoa izango da (biak barne), eta bigarrena urtea amaitu arte kalkulatuko da 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen emaitzak kontuan hartuta.

| ALDERDI POLITIKOA EDO KOALIZIOA | BOTOAK (*) | ESERLEKUAK | DIRULAGUNTZA |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV | 349.960 | 31 | 562.575,32 € |
| EH-Bildu | 249.580 | 21 | 394.373,69 € |
| PSE-EE (PSOE) | 122.248 | 10 | 191.405,02 € |
| Elkarrekin-Podemos-IU | 72.113 | 6 | 113.531,75 € |
| Alderdi Popularra + Ciudadanos | 60.650 | 6 | 101.368,74 € |
| Vox | 17.569 | 1 | 24.811,05 € |
| Guztira | **872.120** | 75 | 1.388.065,57 € |

**(*) Dirulaguntza-eskubidea ematen duten botoak guztira Euskal Autonomia Erkidegoan.**

**Gobernantza Publiko eta Autogobernua**

## GAIKUNTZA NAZIONALA DUTEN TOKI-ADMINISTRAZIOKO FUNTZIONARIOEN EPEA ONARTU DU EUSKO JAURLARITZAK

- **Toki-erakundeetako kontuhartzailetza-diruzaintza, idazkaritza eta idazkaritza-kontuhartzailetza azpieskaletarako gordetako 177 plaza betetzeko da hautaketa prozesua**

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen 2024rako Enplegu Publikoaren Eskaintza (LEP) onartu du gaur Eusko Jaurlaritzak. Zehazki, kontuhartzailetza-diruzaintza, idazkaritza eta idazkaritza-kontu-hartzailetzako azpieskaletan toki-erakundeetarako 177 plaza betetzeko da hautaketa prozesua.

Gobernu Kontseiluak gaur onartutako prozesu honetako plaza gehienak Bizkaiko udaletan eta toki-erakundeetan hutsik dauden lanpostuei dagozkie, eta, ondoren, Gipuzkoan eta Araban.

Prozesuak hainbat modalitate aurreikusten ditu deialdietara sartzeko: txanda irekia edo barne sustapena. Txanda irekiaren bidez deitzen diren plazetarako, oposizio bidez egingo da sarbide sistema; beste azpieskala edo kategoria baterako barne-sustapenekoak, berriz, indarrean dagoen araudian aurreikusitako sistemen arabera egingo dira, eta hori deialdien oinarrietan zehaztuko da.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko sailburuaren agindu baten bidez gauzatuko dira deialdiak, gehienez ere urtebeteko epean. Deialdiak eta oinarriak onartu ondoren, izangaiek EPEn izena emateko beharrezko izapideak bete ahal izango dituzte.
Lan eskaintza publiko honek toki-erakunde hauetan hutsik dauden lanpostuei esleitutako euskara eskakizunak beteko ditu. Euskal Autonomia Erkidegoko langileak hautatzeko prozesu honek erantzun egiten dio toki-erakundeek plaza horiek hizkuntza eskakizun egokiarekin betetzeko egiten duten eskaerari, era horretan herritarrei zerbitzu elebiduna bermatzeko.

Izan ere, funtsezko lanpostuak dira eta beharrezko funtzio publikoak betetzen dituzte: batetik, idazkaritzarena, fede publikoa eta nahitaezko lege aholkularitza barne hartzen dituena, udalen eta toki-erakundeen eguneroko funtzionamenduan ezinbestekoa dena. Eta, bestetik, ekonomia, finantza eta aurrekontu kudeaketaren kontrola eta barne fiskalizazioa, bai eta kontabilitatea, diruzaintza eta diru bilketa ere.

**Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena**

## MARTXAN DA INDUSTRIA DESKARBONIZATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN PROGRAMA: 20 M € INGURUMENA HOBETZEKO, INDUSTRIAKO EKOIZPEN-INSTALAZIOEN MODERNIZAZIOAREN BIDEZ

- **Helburua da industriako enpresei eta horiei lotutako zerbitzuei laguntza eskaintzea, ekoizpen-instalazioetan –berrietan nahiz dagoeneko daudenetan– inbertsioak sustatzeko, bai energia-kontsumotik eta bai ekoizpen-prozesuetatik eratorritako berotegi-efektua duten gasen (BEG) emisioa murrizten lagun dezaten**

- **Laguntza-programa honek inbertsioei buruzko erabakiak aurreratzeko aukera eskainiko du, eta euskal industriaren bidelagun izango da lehiakorra izaten jarrai dezan, testuinguru europar eta globalean, neutraltasun klimatikoranzko trantsizioan**

Eusko Jaurlaritzak gaur onartu du Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindua; Euskadiko enpresentzako laguntza-programa deitu du, deskarbonizazioaren bidez, ingurumenaren babes-maila hobetu ahal izateko: 2024KO INDUSTRIA DESKARBONIZATZEKO PROGRAMA.

Laguntza-deialdi honek 20.000.000 € ditu industriako ekoizpen-instalazioak modernizatzeko, eta, beraz, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioa murrizteko.

Europar Batasuneko Itun Berdeak 2019an ezarri zuen, 2050 urterako, Europa klimatikoki neutroa den lehen kontinentea bilakatzeko helburua. Eta legeria lotesle batean neutraltasun klimatikoaren konpromiso hori jaso du, erdibideko helburu bat ere finkatuz, alegia, 2030erako, berotegi-efektuaren emisioak 1990eko mailarekiko gutxienez % 55 murriztea.

Konpromiso horretan kokatzen dira Eusko Jaurlaritzak 2021ean martxan jarritako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Plana eta aurten Euskadiko Parlamentuak berretsitako Energia Trantsizioren eta Klima Aldaketaren Legea. Neutraltasun klimatikoaren helburu horiek lortzeak eskatzen du ahalegin esanguratsuak egitea Euskadiko ekonomia-esparruetan, eta, bereziki, industria-sarean, inbertsioak egin beharko baititu industriako ekoizpen-instalazioak deskarbonizatzeko. Inbertsio pribatu horiek funts publikoen laguntza beharko dute, eta, aldi berean, laguntzei buruzko Europako araudia errespetatu.

Horregatik guztiagatik, Eusko Jaurlaritzak martxan jarri du industriako enpresei eta industriako produktuei eta prozesuei lotutako zerbitzuei laguntzeko programa hau, ekoizpen-instalazioetan (berri edota dagoeneko

daudenetan) inbertsioak sustatzeko, industria-prozesuen ondoriozko berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak murrizten laguntzeko, bai energia-kontsumotik eta bai ekoizpen-prozesuetatik eratorritakoak.

SPRI Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak gauzatutako laguntza-programa honek inbertsioei buruzko erabakiak aurreratzeko aukera eskainiko du, eta euskal industriaren bidelagun izango da lehiakorra izaten jarrai dezan, testuinguru europar eta globalean, neutraltasun klimatikoranzko trantsizioan.

**2024ko Industria Deskarbonizatzeko Programa: tramitazioa**

Agindu honetan agertzen diren diru-laguntzak honako baldintza hauek betetzen dituzten Enpresa Handi eta Enpresa Ertain eta Txikiek (ETE) eskuratu ahal izango dituzte: erauzketako industria-enpresak, enpresa eraldatzaileak, ekoizpenekoak eta industria-produktuari eta industria-prozesuari lotutako zerbitzuetakoak izan beharko dira eta laguntzaren xede diren inbertsioak Euskadin egiten dituztenak.

Laguntzak emateko deialdi honetako eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta deialdi honek dakartzan gainerako kudeaketak **bitarteko elektronikoen bidez egingo dira**, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bitarteko elektronikoen bidez eskaerak, ardura-aitorpenak eta egindako inbertsioen egiaztapenak –tramitagune prozeduran ageri direnak– www.euskadi.eus webgunean egingo dira. Eskaerak, ardura-aitorpenak eta egiaztapenak egiteko eredu normalizatuak www.euskadi.eus webgunean bete ahal izango dira, diru-laguntzen deialdia egin ostean.

Eskaerak aurkezteko hasiera-data Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren argitalpen-dataren hurrengo eguna izango da, eta 2024ko ekainaren 20an amaituko da. Sei hilabetekoa izango da ebazpenerako epea.

**Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena**

## EUSKO JAURLARITZAK INDARTU 2024 PROGRAMA AKTIBATU DU EGOERA AHULEKO ZONALDETAKO ENPRESENTZAT

- **Ezkerralde Hedatuan eta batez besteko langabezia-tasa % 5 baino gehiago duten udalerrietan, inbertsioak egiten dituzten enpresei diruz lagunduko zaie**

- **Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 28an amaituko da**

Gobernu Kontseiluak, gaurko saioan, 20.000.000 euroko gastua egiteko baimena eman du, INDARTU 2024 PROGRAMA diruz laguntzeko. Hobekuntza lehiakorra eta garapen ekonomikoa ekarriko duten inbertsio produktiboak egiten dituzten enpresak laguntzea du helburu programa honek. Horretarako, Ezkerralde Hedatua eta langabezia-tasaren urteko batez bestekoa % 5 baino handiagoa duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak sustatu nahi ditu. Enplegua sortzen duen inbertsio produktiboak sustatzea da Eusko Jaurlaritzaren jardutea bideratzen duen funtsezko ardatz estrategikoetako bat.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, urtero, enpresentzako laguntza-sortaren barruan, INDARTU programa deitzen du, eta honako ezaugarri hauek ditu: 1) laguntzak bideratzen dituen zonalde geografikoetan, enpresa berrien nahiz dagoeneko dauden enpresen inbertsio produktiboa sustatzea (lehentasuna izango dute produktuaren eraldatze-prozesua, gaitasunen hazkuntza edo jarduera berrien garapena hobetzeko zuzeneko inbertsioek), 2) zonaldearen araberako diskriminazio positibo bat egitea, langabezia-egoera larriagoa bizi duten zonalde zehatzei zuzendua, 3) inbertsioak behar bezala diruz laguntzeko beharra azpimarratzea eta 4) enpresa bakoitzeko gehienez 3 milioi euroko diru-laguntza finkatzea, lagundu beharreko inbertsioaren arabera, sortu beharreko enpleguaren bolumena aintzat hartu gabe.

Nekazaritzako elikagaien enpresek INDARTU 2024 programako laguntzak jaso ditzakete, betiere, beren inbertsioek diru-laguntzarik jaso ez badute nekazaritzako, elikadurako eta arrantza eta akuikulturatik eratorritako produktuak eraldatzeko eta komertzializatzeko laguntzen testuinguruan.

### Egoera ahuleko zonaldeak

Ekitaldi honetan Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ahuleko zonaldeen konfigurazioari (2022-2027) eutsi zaio (Oiartzualdea kendu zen eta Ezkerralde Hedatuak hor jarraitzen du), eta batez beste langabezia-tasa % 5 baino gehiago izatea planteatzen da. Europar Batasunak markatutako konfigurazio berriak eragiten dituen udalerriak integratzen laguntzeko ezartzen da batez besteko hori; udalerri horiek irizpideak betetzen dituzte egoera ahuleko zonaldetzat katalogatu ahal izateko.

INDARTU 2024 programak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak eskaintzen ditu, honako portzentaje hauekin: enpresa handientzat, laguntza jaso dezakeen inbertsioaren % 10; enpresa txiki eta ertainentzat (ETE), % 15. Diru-laguntza handitu egingo da ehunekotan bost puntu (% 5) Euskal Autonomia Erkidegoko Ezkerralde Hedatuan kokatutako udalerrietan inbertsioak egiten dituzten ETEen kasuan.

Enpresa edo enpresa-talde bakoitzak gehienez 3.000.000 euroko diru-laguntza jasoko du. Enpresa handientzat onartutako gutxieneko inbertsioa 1.500.000 eurokoa izango da. ETE enpresen kasuan, onartutako gutxieneko inbertsioa 200.000 eurokoa izango da. Aintzat hartuko dira, onartutako gutxieneko inbertsioa egin ez arren, gutxienez 25 enplegu gordin sortzen dituztenak (enpresa handien kasuan) eta gutxienez 5 enplegu sortzen dituztenak (ETE enpresen kasuan).

**Ekonomia eta Ogasuna**

## 2024 ESTATISTIKA PROGRAMAK 232 ESTATISTIKA-ERAGIKETA AURREIKUSTEN DITU, 24,7 MILIOI EUROKO KOSTUAREKIN

EAEko Urteko Estatistika Programak 232 estatistika-eragiketa aurreikusten ditu aurten, 24,7 M €-ko kostuarekin. Horretarako, Gobernu Kontseiluak programa hau erregulatzen duen dekretua onartu du gaurko bileran.

2024ko Estatistika Programak 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren Legea garatu eta egikaritzen du. Lege hori Eusko Legebiltzarrak aho batez onartua da. Plana Euskadiko aldi horretako estatistika-jarduera antolatzeko tresna da. Urte honetarako, barne hartzen dira Eustatek eta Eusko Jaurlaritzako sailen estatistika-organoek 2024an zehar abian jarriko dituzten estatistika-eragiketak eta estatistika-jarduerak.

Estatistika ofiziala ezinbestekoa da gizartearen errealitate sozioekonomikoa ezagutzeko, kalitatezko datuak eskaintzen baititu metodologia egiaztatuekin. Estatistikek ematen dituzten emaitzak funtsezkoak dira, erabakiak hartzeko garaian zuzeneko eragina baitute, bai sektore publikoan, bai pribatuan.

Eustatek datorren urterako planteatutako 232 estatistika-eragiketak azken programan jasotakoak baino 22 gehiago dira. Programaren kostu osotik (24,7 M €), Eustatek % 74,5etan hartzen du parte eta, ondoren, honako hauek datoz: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (% 6,0), Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila (% 5,6) eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (% 3,9).

Eustatek 119 eragiketaren ardura du, eta sailek banaketa hau du dute:

- Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena: 31 eragiketa.
- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak: 14 eragiketa.
- Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak: 11 eragiketa.
- Kultura eta Hizkuntza Politika: 11 eragiketa.
- Osasuna: 11 eragiketa.
- Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa: 10 eragiketa.
- Lana eta Enplegua: 9 eragiketa.
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: 8 eragiketa.
- Ogasuna eta Ekonomia: 4 eragiketa.
- Segurtasuna: 3 eragiketa.
- Hezkuntza: 1 eragiketa.

Hiru foru-aldundiak ere parte-hartzaile gisa agertzen dira.

Gaikako arloen arabera, kostu handienekoa Demografia eta gizarte-ohiturak da (2024ko Programaren guztizkoaren % 12,5), eta ondoren datoz Kontu ekonomikoak (% 12,1) eta Estatistika-azpiegitura (% 11,6).

**Hedapen-aldizkakotasunaren arabera**, 190 estatistika-eragiketa egiturazkoak dira —urtean behin edo gehiagotan egiten dira, eta horietatik 102 urtekoak dira—, eta 31 koiunturalak dira —urtean behin baino gutxiagotan hedatzen dira—.

Nabarmendu behar da, halaber, **datu-iturri** gisa **administrazio- edo zerga-informazioa** erabiltzen dela 91 estatistika-eragiketatan, eta 66 gehiagotan iturri gisa informazio osagarria edo mistoa gehitzen dela.

## Osasuna

**OSASUN SAILAK HITZARMEN BAT SINATU DU LANBIDE HEZIKETAKO ZAZPI EUSKAL IKASTETXEREKIN, IKASLEEK OSASUN PUBLIKOKO LABORATEGIAN PRAKTIKAK EGIN DITZATEN**

Gobernu Kontseiluari gaur eman zaio Osasun Sailak Euskadiko Lanbide Heziketako zazpi ikastetxerekin sinatutako akordioaren berri. Akordioak helburu du ikasleek praktikak sail horretako Osasun Publikoko Laborategian egin ahal izatea.

Zehazki, lankidetza-akordioa honako irakaskuntza-puntu hauetara hedatzen da:

- Araban, Gasteizko Egibide LHko ikastetxea.
- Bizkaian, Gurutze Gorriaren ikastetxea, Elorrieta-Errekamari LHko ikastetxea eta Zabalburu ikastetxea (guztiak Bilbon), eta Erandioko Tartanga LHko ikastetxea.
- Gipuzkoan, Donostiako Easo Politeknikoa ikastetxea eta Urnietako CESA osasun-ikasketen zentroa.

Sinatutako hitzarmenei esker, ikastetxe horietako ikasleek Lantokiko Prestakuntza nahitaezko modulua egin ahal izango dute, hezkuntza-sistemak Osasun Publikoko Laborategian ezarritakoa, aztergai diren gaiekin zuzeneko lotura duten arloetan.

Praktika horien bidez, prestakuntza- eta kalifikazio-aldi baten ondoren, ikasleek Laborategiak garatzen dituen jardueretan parte hartuko dute, hala nola honako hauetan: laginak, erreaktiboak, patroiak eta hazkuntza-bitartekoak prestatzea; ekipoak mantentzea, egiaztatzea eta kalibratzea; hazkuntza-materiala eta -bitartekoak esterilizatzea; emaitzak ziurtatzeko eta metodoak baliozkotzeko zereginei lotutako analitikak eta kontrol-analisiak egitea; etab.

**Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak**

## ELANKIDETZAK, TECNALIAK ETA HABANAKO UNIBERTSITATEAK KUBAREN ETA EUSKADIREN ARTEKO BERRIKUNTZA-EKOSISTEMAK KONEKTATU DITUZTE

Gobernu Kontseiluak erabaki du, gaur goizean, eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren −Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailekoa−, Habanako Unibertsitateko Berrikuntza eta Garapeneko Unibertsitate Fundazioaren eta Tecnalia Fundazioaren arteko jardueren protokolo orokorra onartzea. Protokoloari esker, hiru erakundeek Kuba-Euskadi CEiCE Berrikuntza-ekosistemak Lotzen proiektua bultzatzen jarraituko dute.

Garapenerako Lankidetzako alorrean Kuba eta Euskadiren arteko harremana sendotzeko, 2020ko uztailean, Kubako Gobernuaren Kanpo Merkataritzako eta Atzerriko Inbertsiorako Ministerioak (MINCEX) eta eLankidetzak elkarlanerako memorandun bat sinatu zuten. Bertan, esplizituki jasotzen dira zientzia, teknologia eta berrikuntza jarduera-sektore gisa, garapen faktore funtsezkotzat hartzen baitira.

Ildo horretan, 2021ean, eLankidetza, Habanako Unibertsitatea eta Tecnalia elkarlanean hasi ziren bai Kuban eta baita Euskadin ere, modu ezberdinean, eragiten duten erronka globalei elkarrekin aurre egiten laguntzeko.

Gauzak horrela, Euskaditik, zientzia, teknologia eta berrikuntzaren alorreko euskal eragileak Kubako ekosistemarekin partekatzen ari dira ikasitako praktika onak eta ikasgaiak. Kubak, bere aldetik, bere ezagutza eta esperientzia partekatzen ditu berrikuntzaren euskal ekosistema aberasteko.

Ekimen honek, besteak beste, berrikuntza teknologiko-zientifikoa, talentu teknologikoa erakartzea eta ikerketaren bikaintasuna bezalako erronkei elkarrekin erantzuten lagundu nahi du, garapen ekonomikoa eta soziala hobetze aldera.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK MILIOI BAT EURO BIDERATUKO DITU NAGUSIKI GAZTELANIAZKO HEDABIDEAK DIRENETAN EUSKARA SUSTATZERA

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du nagusiki gaztelania darabilten hedabideetan (eguneroko prentsa eta uhin bidezko irratietan) eta internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentzietan, euskararen erabilera areagotzeko 2024ko dirulaguntza deialdia. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak guztira milioi bat euro bideratuko du komunikabide hauetan euskara sustatzera. Dirulaguntzak honela banatuko dira.

- **A multzoa:** 900.000 euro bideratuko dira eguneroko prentsan eta egunkarietan euskararen presentzia areagotzeko. Honela egingo da banaketa:
  - **A1**: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako egunkariak diruz laguntzeko 550.000 euro erabiliko dira. Egunkariek astean gutxienez 10 orrialde argitaratu behar dituzte euskaraz sail desberdinetan era orekatu baten banatuta.
  - **A2**: nagusiki gaztelania darabilten paperean inprimatutako egunkarien edizio digitalak diruz laguntzera 350.000 euro bideratuko dira. Edizio digitaletan egunero gutxienez 6 albiste berri argitaratuko dira euskaraz eta denak izan beharko dira irekiak, hau da, harpidetzarik gabekoak.
- **B multzoa**: 50.000 euroko partida erabiliko da internet bidez albisteak euskaraz ere ematen dituzten berri-agentziak diruz laguntzeko. Dirulaguntza jasotzeko, besteak beste, egunero, gutxienez, 12 albiste berri euskaraz zabaldu beharko dituzte.
- **C multzoa**: Osorik euskaraz emititzen ez duten uhin bidezko irratietan euskara sustatzera 50.000 euro bideratuko dira. Dirulaguntza jasotzeko emisio orduetatik % 85 euskaraz izan behar da eta euskarazko emisio orduak, astean, gutxienik, 25 ordu izan beharko dira.

Interesa duten hedabideek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epea izango dute eskaerak aurkezteko.

2023ko deialdian 13 eskaera onartu ziren, eta diruz lagundutako hedabideen artean daude Gara, Noticias de Álava, Deia, Noticias de Gipuzkoa, Diario Vasco, El Correo, Naiz, Europa Press, Agenciadenoticias.es eta Segura Irratia.

**Presidencia**

**EN UN MES, 4.371 PERSONAS JÓVENES HAN SOLICITADO YA LA AYUDA DEL PROGRAMA EMANTZIPA PARA FAVORECER LA EMANCIPACIÓN JUVENIL**

- **El 52,2 % de las personas solicitantes son de Bizkaia, el 33,7 % de Gipuzkoa y el 14,1% de Araba**
- **El 71,9 % se han emancipado o lo van a hacer en alquiler, y el restante 28,1 % lo hace en una vivienda en compra**
- **El 60,9 de las solicitudes son de mujeres, mientras que el 39,1% corresponde a hombres**
- **La respuesta obtenida es muy positiva. Se corresponde con las previsiones realizadas. No se ha producido ninguna incidencia negativa destacable**
- **La ayuda Emantzipa del Gobierno Vasco está dirigida a favorecer la emancipación de personas jóvenes de 25 a 29 años**
- **Consiste en el pago mensual de 300 euros, durante 24 meses como máximo, siempre y cuando acrediten un gasto**
- **El medio más directo para presentar la solicitud es a través de www.euskadi.eus/emantzipa**

En el plazo de un mes, 4.371 personas entre 25 y 29 años han solicitado la nueva ayuda del Programa Emantzipa para favorecer la emancipación juvenil. Esta prestación consiste en un pago mensual de 300 euros, durante 24 meses como máximo, siempre y cuando se acredite un gasto de alquiler, hipoteca o préstamo personal de una vivienda libre.

Esta mañana el Lehendakari, Iñigo Urkullu, ha presentado en el Consejo de Gobierno los principales datos sobre las solicitudes presentadas. Desde que se abrió el plazo de solicitud el pasado 20 de febrero, se han presentado un total de 4.371 solicitudes. De ellas, el 52,2 % de las personas solicitantes son de Bizkaia, el 33,7 % de Gipuzkoa y el 14,1% de Araba.

El 60,9 de las solicitudes son de mujeres, mientras que el 39,1% corresponde a hombres. Este dato es coherente con la diferencia de diez puntos que se observa en la última década en la tasa de emancipación de mujeres.



Del conjunto de solicitudes presentadas se desprende que el 71,9 % de las personas solicitantes se han emancipado o lo van a hacer en alquiler, y el restante 28,1 % lo hace en una vivienda en compra.




En cuanto a los municipios, 1.075 solicitudes son de jóvenes que se van a emancipar en Bilbao, 548 en Donostia, 515 en Vitoria-Gasteiz, 182 en Barakaldo y 118 en Getxo.




Emantzipa es compatible con otras prestaciones, sin embargo, el 60,9 % de las personas jóvenes solicitantes, no perciben ninguna otra ayuda para favorecer su emancipación. Entre quienes son beneficiarias de otras ayudas, el 47,5 % de las personas que se emancipan en arrendamiento, son beneficiarias también del programa Gaztelagun.




Atendiendo a la forma de presentación, el 94,4 % de las solicitudes han sido presentadas de manera telemática, el 5,6 % de manera presencial.

Finalmente, las personas solicitantes tienen una media de 19.000 euros de ingresos, y en concreto, aquellas que se emancipan en compraventa tienen una media de 21.000 euros de ingresos, y quienes lo hacen en arrendamiento 19.000 euros de ingresos anuales.

La respuesta obtenida hasta la fecha es muy positiva. Se corresponde con las previsiones realizadas. No se ha producido ninguna incidencia negativa destacable. El aplicativo diseñado y el operativo de gestión están funcionando adecuadamente.

## Solicitudes y consultas

Las personas jóvenes interesadas pueden presentar la solicitud de la manera más sencilla a través de www.euskadi.eus/emantzipa. En caso de tener dudas, pueden ponerse en contacto con la Dirección de Juventud llamando al 945 015 591 o enviando un correo a emantzipa@euskadi.eus.

Asimismo, pueden contar con el acompañamiento del servicio GAZ Emantzipaziorako zerbitzua, de manera online a través del canal EMANTZIPA de la comunidad, mandando un whatsapp al número 646 109 126 o enviando un correo electrónico a gaz@euskadi.eus; o de manera presencial, acercándose a las oficinas GAZ de Bilbao (La Perrera) o Barakaldo.

**Seguridad**

## APROBADA LA SUBVENCIÓN PARA FINANCIAR EL FUNCIONAMIENTO ORDINARIO DE LOS PARTIDOS POLÍTICOS ENTRE EL 1 DE ENERO Y 21 DE ABRIL DE 2024

- **Los presupuestos contemplan una partida total de 4.536.000 euros para 2024, que se dividirá en dos órdenes de pago diferentes para poder ajustarla a la representación de los partidos después de las elecciones del 21 de abril**

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el primer pago de las subvenciones a los partidos políticos o coaliciones con representación en el Parlamento Vasco para financiar sus gastos de funcionamiento ordinario. Es la correspondiente al periodo comprendido entre el 1 de enero hasta el 21 de abril del 2024. El importe es de 1.388.065,57 euros y su distribución se calcula teniendo en cuenta los resultados de las últimas elecciones al Parlamento Vasco en votos y escaños.

Los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi contemplan una partida total para 2024 de 4.536.000 euros. Dado que se han convocado elecciones al Parlamento Vasco para el próximo 21 de abril, en este ejercicio se abonará la subvención en dos periodos: el primero abarca del 1 de enero de 2024 al 21 de abril de 2024 (ambos inclusive), y el segundo se calculará hasta final de año atendiendo a los resultados de las próximas elecciones al Parlamento Vasco de 2024.

| PARTIDO POLÍTICO O COALICIÓN | VOTOS (*) | ESCAÑOS | SUBVENCIÓN |
|---|---|---|---|
| EAJ-PNV | 349.960 | 31 | 562.575,32 € |
| EH Bildu | 249.580 | 21 | 394.373,69 € |
| PSE-EE (PSOE) | 122.248 | 10 | 191.405,02 € |
| Elkarrekin Podemos-IU | 72.113 | 6 | 113.531,75 € |
| Partido Popular + Ciudadanos | 60.650 | 6 | 101.368,74 € |
| Vox | 17.569 | 1 | 24.811,05 € |
| Total | **872.120** | 75 | 1.388.065,57 € |

**(*) Total Votos Comunidad Autónoma de Euskadi con derecho a subvención.**

**Gobernanza Pública y Autogobierno**

## EL GOBIERNO VASCO APRUEBA LA OPE DEL PERSONAL FUNCIONARIO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL CON HABILITACIÓN DE CARÁCTER NACIONAL

- **El proceso selectivo está dirigido a cubrir 177 plazas reservadas a las subescalas de intervención-tesorería, secretaría y secretaría-intervención en entidades locales**

El Gobierno Vasco ha aprobado hoy la Oferta Pública de Empleo (OPE) para el año 2024 del personal funcionario de Administración Local con habilitación de carácter nacional, en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE). En concreto, el proceso selectivo está dirigido a cubrir 177 plazas para entidades locales en las subescalas de intervención-tesorería, secretaría y secretaría intervención.

Las plazas de este proceso aprobado hoy en el Consejo de Gobierno corresponden en su mayoría a puestos vacantes en ayuntamientos y entidades locales de Bizkaia, seguido de Gipuzkoa y Araba.

El proceso prevé diferentes modalidades para acceder a las convocatorias: por turno libre o promoción interna. Para las plazas que se convoquen por turno libre el sistema de acceso será mediante oposición, mientras que las de promoción interna a otra subescala o categoría será siguiendo los sistemas previstos en la normativa vigente, lo que se determinará en las bases de las convocatorias.

Las convocatorias se materializarán a través de una orden de la consejera del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno en el plazo máximo de un año. Una vez aprobadas las convocatorias y las bases, las personas aspirantes podrán completar los trámites necesarios para inscribirse en la OPE.

Esta OPE se atendrá a los perfiles lingüísticos de euskera que asignen las entidades locales competentes a los puestos vacantes. Este proceso selectivo de personal propio de la Comunidad Autónoma de Euskadi da respuesta a la demanda de las entidades locales para cubrir estas plazas con el perfil lingüístico adecuado, de tal forma que se garantice un efectivo servicio bilingüe a la ciudadanía.

Se trata de puestos clave y que desempeñan funciones públicas necesarias: por un lado, la de secretaría, comprensiva de la fe pública y el asesoramiento legal preceptivo, imprescindible en el día a día del funcionamiento de ayuntamientos y entidades locales. Y, por otro lado, el control y la fiscalización interna de la gestión económico-financiera y presupuestaria, así como la contabilidad, tesorería y recaudación.

**Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente**

## EN MARCHA EL PROGRAMA DE DESCARBONIZACIÓN INDUSTRIAL DEL GOBIERNO VASCO: 20 M€ PARA MEJORAR EL MEDIO AMBIENTE A TRAVÉS DE LA MODERNIZACIÓN DE LAS INSTALACIONES PRODUCTIVAS INDUSTRIALES

- **El objetivo es apoyar a empresas industriales y de servicios conexos para fomentar inversiones en instalaciones productivas, nuevas y/o existentes, que permitan reducir las emisiones de gases de efecto invernadero (GEI), tanto las derivadas del consumo de energía como de los procesos de producción**

- **Este programa de ayudas permitirá anticipar decisiones de inversión y acompañar a la industria vasca para que siga siendo competitiva en un contexto europeo y global de transición hacia la neutralidad climática**

El Gobierno Vasco ha aprobado hoy la orden de la consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, Arantxa Tapia, para convocar el programa de ayudas a empresas de Euskadi, que mejoren el nivel de protección medio ambiental a través de la descarbonización: PROGRAMA DE DESCARBONIZACIÓN INDUSTRIAL 2024.

Esta convocatoria de ayudas cuenta con 20.000.000 € para la modernización de las instalaciones productivas industriales y, por tanto, para la reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero.

El Pacto Verde de la Unión Europea estableció en 2019 el objetivo de convertir a Europa en el primer continente climáticamente neutro de aquí a 2050. Y ha recogido en legislación vinculante ese compromiso de neutralidad climática, estableciendo como objetivo intermedio reducir las emisiones de efecto invernadero en al menos el 55% con respecto a los niveles de 1990, para el año 2030.

En ese compromiso se enmarcan el Plan de Transición Energética y Cambio Climático puesto en marcha por el Gobierno Vasco en 2021, y la Ley de Transición Energética y Cambio Climático refrendada por el Parlamento de Euskadi este año. La consecución de estos objetivos de neutralidad climática requerirá esfuerzos significativos en los distintos ámbitos económicos del Euskadi, y de modo especial en el tejido industrial, que va a tener que afrontar inversiones para descarbonizar sus instalaciones productivas industriales. Esas inversiones privadas van a requerir de un apoyo adecuado de fondos públicos, respetando al mismo tiempo la normativa europea sobre ayudas.

Por todo ello, el Gobierno Vasco activa el presente programa de apoyo a

empresas industriales y de servicios conexos ligados al producto-proceso industrial, para fomentar las inversiones en instalaciones productivas (nuevas y/o existentes) que permitan reducir las emisiones de gases de efecto invernadero (GEI) consecuencia de sus procesos industriales, tanto las derivadas del consumo de energía como de los procesos de producción.

Este programa de ayudas, que ejecutará la Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial, SPRI, permitirá anticipar decisiones de inversión y acompañar a la industria vasca para que siga siendo competitiva en un contexto europeo y global de transición hacia la neutralidad climática.

**Programa de Descarbonización Industrial 2024: Tramitación**

Podrán acceder a las subvenciones contempladas en la presente orden las Grandes Empresas y las Pequeñas y Medianas Empresas (PYMEs) que cumplan con la característica de ser industriales extractivas, transformadoras, productivas y de servicios conexos ligados al producto-proceso industrial, cuyas inversiones objeto de la ayuda se localicen en Euskadi.

Las solicitudes, requerimientos, notificaciones y demás gestiones implicadas en esta convocatoria de concesión de ayudas **se efectuarán por medios electrónicos**, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las especificaciones de cómo tramitar, por el canal electrónico, las solicitudes, declaraciones responsables y de justificación de las inversiones realizadas, que figuran en el procedimiento de tramitagune, se cumplimentarán en la dirección de Internet www.euskadi.eus. El modelo normalizado de solicitud, de declaración responsable y los de justificación se podrán cumplimentar en la dirección de Internet, www.euskadi.eus, una vez efectuada la convocatoria de las subvenciones.

La fecha de inicio de presentación de solicitudes será al día siguiente de su publicación en el BOPV y la finalización el 20 de junio de 2024. Habrá un plazo de resolución de seis meses.

**Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente**

## EL GOBIERNO VASCO ACTIVA EL PROGRAMA INDARTU 2024 CON 20.000.000 € PARA EMPRESAS EN ZONAS DESFAVORECIDAS

- **Se subvenciona a empresas que realicen inversión productiva en la Zona Margen Izquierda Ampliada y en municipios con una tasa de desempleo superior al 5% de la media**

- **El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 28 de junio**

El Consejo de Gobierno, en su sesión de hoy, ha autorizado el gasto de 20.000.000 €, para la financiación del PROGRAMA INDARTU 2024. El programa tiene como objetivo subvencionar a empresas que realicen inversión productiva que conlleve mejora competitiva y desarrollo económico, para impulso de la Zona Margen Izquierda Ampliada y otros municipios con una tasa de desempleo superior al 5 % de la media anual de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La promoción de inversión productiva generadora de empleo es uno de los ejes estratégicos fundamentales que orientan la actuación del Gobierno Vasco.

El Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente convoca anualmente, dentro de su paquete de ayudas a empresas, el programa INDARTU, que tiene las siguientes características: 1) incentivar, en las zonas geográficas a las que se dirigen las ayudas, la inversión productiva realizada tanto por nuevas empresas como por empresas existentes (tienen preferencia las inversiones directamente ligadas con mejoras en el proceso de transformación del producto, incremento de capacidades o desarrollo de nuevas actividades), 2) realizar una discriminación positiva de contenido territorial, dirigida hacia determinadas zonas que sufren con mayor gravedad la situación de desempleo, 3) incidir en la necesidad de que las inversiones estén adecuadamente financiadas y 4) fijar una subvención máxima de tres millones de euros por empresa, en función de la inversión subvencionable, con independencia del volumen de empleo a crear.

Las empresas agroalimentarias pueden ser beneficiarias del programa INDARTU 2024 siempre que sus inversiones no sean objeto de subvención en el marco de programas de ayudas a la transformación y comercialización de productos agrarios, alimentarios y los derivados de la pesca y la acuicultura.

### Zonas desfavorecidas

Para este ejercicio se sigue estableciendo la configuración (2022-2027) de las zonas desfavorecidas para la Comunidad Autónoma del País Vasco (se eliminó la zona de Oiartzualdea y se mantiene la zona de Margen Izquierda Ampliada), y se plantea que la tasa de paro superior a la media sea del 5%. Este porcentaje se establece para intentar facilitar la integración de municipios

afectados por la nueva configuración marcada por la Unión Europea y que cumplen con criterios que les podrían catalogar como de integrantes de zonas desfavorecidas,
El programa INDARTU 2024 ofrece subvenciones a fondo perdido con los siguientes porcentajes: para las grandes empresas, el 10 % de la inversión susceptible de apoyo; para las pymes, el 15 %. La intensidad de ayuda se verá incrementada en cinco puntos porcentuales (5%) en el caso de pymes que realicen inversiones en los municipios situados en la Zona Margen Izquierda Ampliada de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Las subvenciones tendrán un límite máximo de 3.000.000 € por empresa o grupo empresarial. Las grandes empresas deberán realizar una inversión admitida mínima de 1.500.000 €. En el caso de las pymes, la inversión admitida mínima es de 200.000 €. También se considerarán las inversiones de las empresas que, aunque no alcancen los mínimos de inversión admitida, generen un mínimo de 25 empleos netos, (en el caso de grandes empresas), y un mínimo de 5 empleos netos (en el caso de pymes).

**Economía y Hacienda**

## EL PROGRAMA ESTADÍSTICO 2024 CONTEMPLA 232 OPERACIONES ESTADÍSTICAS CON UN COSTE DE 24,7 MILLONES DE EUROS

El Programa Estadístico Anual de la CAE contempla para este año un total de 232 operaciones estadísticas, con un coste de 24,7M€. Para ello, el Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy el decreto que regula este programa.

El Programa Estadístico 2024 desarrolla y ejecuta la Ley del Plan Vasco de Estadística 2023-2026, aprobada por unanimidad por el Parlamento Vasco. El Plan es el instrumento ordenador de la actividad estadística de Euskadi durante este período. Para este año se incluyen todas las operaciones estadísticas y actividades de esta naturaleza que desplegarán Eustat y los órganos estadísticos de los Departamentos del Gobierno Vasco a lo largo de 2024.

La estadística oficial es imprescindible de cara a conocer la realidad socio-económica de la sociedad, ofrece datos de calidad y con metodologías contrastadas. Los resultados que facilitan las estadísticas son fundamentales al incidir de forma directa en la toma de decisiones, tanto en el sector público como en el privado.

Las 232 operaciones estadísticas planteadas por Eustat para el próximo año suponen 22 más que las contempladas en el último programa. Del coste total del programa (24,7M€), Eustat participa del 74,5%, seguido del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente con un 6,0%, del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales con un 5,6% y del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes con un 3,9%.

Eustat es responsable de 119 de las operaciones y los Departamentos tienen la siguiente distribución:

- Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente: 31 operaciones
- Planificación Territorial, Vivienda y Transportes: 14 operaciones
- Igualdad, Justicia y Políticas Sociales: 11 operaciones
- Cultura y Política Lingüística: 11 operaciones
- Salud: 11 operaciones
- Turismo, Comercio y Consumo: 10 operaciones
- Trabajo y Empleo: 9 operaciones
- Gobernanza Pública y Autogobierno: 8 operaciones
- Economía y Hacienda: 4 operaciones
- Seguridad: 3 operaciones
- Educación: 1 operación

Aparecen también como participantes las tres Diputaciones Forales.

Por Áreas Temáticas, la de más coste es Demografía y hábitos sociales que supone el 12,5% del Programa 2024, seguido de las Cuentas Económicas con el 12,1% y de Infraestructura estadística con el 11,6%.

**Por periodicidad de difusión**, 190 operaciones estadísticas son estructurales-con una periodicidad anual o superior-, de las cuales 102 son anuales-, y 31 son coyunturales -periodicidad de difusión inferior al anual-.

Resaltar también que se utiliza como **fuente de datos la información administrativa o fiscal** en 91 operaciones estadísticas y en 66 más se incorpora como información auxiliar o mixta como fuente.

**Salud**

## EL DEPARTAMENTO DE SALUD SUSCRIBE UN ACUERDO CON SIETE CENTROS DE FORMACIÓN PROFESIONAL VASCOS PARA QUE SU ALUMNADO REALICE LAS PRÁCTICAS EN EL LABORATORIO DE SALUD PÚBLICA

El Consejo de Gobierno ha sido informado hoy del acuerdo suscrito por el Departamento de Salud con siete centros de Formación Profesional de Euskadi, para posibilitar que su alumnado pueda realizar las prácticas en el Laboratorio de Salud Pública de dicho departamento.

En concreto, el acuerdo de colaboración se extiende a los siguientes puntos de enseñanza:

- En Araba, Centro de FP Egibide de Vitoria-Gasteiz
- En Bizkaia, Centro de Estudios Cruz Roja, Centro de FP Elorrieta-Errekamari y Centro Zabalburu Ikastetxea, todos en Bilbao, y Centro de FP Tartanga de Erandio
- En Gipuzkoa, Centro de Estudios Easo Politeknikoa de Donostia y Centro de Estudios Sanitarios CESA de Urnieta

Merced a los convenios firmados, el alumnado de los citados centros podrá realizar el preceptivo módulo de Formación en Centro de Trabajo establecido por el sistema educativo en el Laboratorio de Salud Pública, en áreas directamente relacionadas con las materias objeto de estudio correspondientes.

Esas prácticas consistirán en que, tras un periodo de formación y calificación, el alumnado participe en actividades que desarrolla el Laboratorio, tales como preparación de muestras, reactivos, patrones y medios de cultivo; mantenimiento, verificación y calibración de equipos; esterilización de material y medios de cultivo; realización de analíticas y de análisis de controles ligados a las tareas de aseguramiento de resultados y validación de métodos; etcétera.

**Igualdad, Justicia y Políticas Sociales**

## ELANKIDETZA, LA UNIVERSIDAD DE LA HABANA Y TECNALIA CONECTAN LOS ECOSISTEMAS DE INNOVACIÓN ENTRE CUBA Y EUSKADI

El Consejo de Gobierno ha acordado dar luz verde, esta mañana, al protocolo general de actuaciones entre eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad, perteneciente al Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, La Fundación Universitaria de Innovación y Desarrollo de la Universidad de La Habana y la Fundación Tecnalia. Gracias al protocolo, las tres instituciones continuarán impulsando el proyecto Conectando los Ecosistemas de innovación Cuba-Euskadi CEiCE.

Con el objetivo de fortalecer las relaciones de colaboración entre Cuba y Euskadi en materia de cooperación para el desarrollo, en julio de 2020, el Ministerio del Comercio Exterior y la Inversión Extranjera (MINCEX) del Gobierno de Cuba y eLankidetza firmaron un memorando de entendimiento. El mismo recoge explícitamente la ciencia, la tecnología y la innovación como sector de actuación al ser considerados factores sustanciales de desarrollo.

En ese sentido, en 2021, eLankidetza, la Universidad de La Habana y Tecnalia comenzaron a colaborar para contribuir a afrontar conjuntamente los retos globales que impactan, de manera diferenciada, tanto en Cuba como en Euskadi.
Desde Euskadi, agentes vascos del ámbito de las ciencias, la tecnología y la innovación están compartiendo con el ecosistema cubano las buenas prácticas y lecciones aprendidas. Cuba, por su parte, también comparte su conocimiento y experiencia para enriquecer el ecosistema vasco de innovación.

Esta iniciativa quiere contribuir a afrontar conjuntamente retos como la innovación tecnológica-científica, la captación de talento tecnológico y la excelencia investigadora, entre otros, para mejorar el desarrollo social y económico.

**Cultura y Política Lingüística**

## EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ UN MILLÓN DE EUROS A FOMENTAR EL EUSKERA EN LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN QUE TRABAJAN PRINCIPALMENTE EN CASTELLANO

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria de subvenciones 2024 para incrementar el uso del euskera en los medios de comunicación que utilizan principalmente el castellano (prensa diaria y radios de onda) y en las agencias de noticias que también emiten noticias en euskera a través de internet. El departamento de Cultura y Política Lingüística destinará en total un millón de euros a fomentar el euskera en estos medios de comunicación. La distribución de las subvenciones será la siguiente.

- **Grupo A**: se destinarán 900.000 euros para incrementar la presencia del euskera en la prensa diaria y en los periódicos. La distribución se hará de la siguiente manera:
    - **A1:** 550.000 euros para subvenciones a diarios impresos en papel que utilizan principalmente el castellano. Los periódicos deben publicar al menos 10 páginas semanales en euskera distribuidas de forma equilibrada en las distintas secciones.
    - **A2**: se destinarán 350.000 euros para subvencionar la presencia del euskera en ediciones digitales de los diarios impresos en papel que utilizan principalmente el castellano.
    - En las ediciones digitales se publicarán cada día al menos 6 noticias nuevas en euskera y todas podrán leerse de manera “abierta”, es decir, sin suscripción.
- **Grupo B**: se destinará una partida de 50.000 euros para subvencionar a las agencias de noticias que también difunden noticias en euskera a través de Internet. Para recibir la subvención, entre otras condiciones, deberán difundir al menos 12 noticias diarias en euskera.
- **Grupo C**: se destinarán 50.000 euros a la promoción del euskera en las radios de onda que no emitan íntegramente en euskera. El 85% de las horas de emisión debe ser en euskera y el número mínimo de horas semanales de emisión en euskera será de 25 horas.

Los medios interesados tendrán un mes, para presentar las solicitudes, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En la convocatoria del 2023 se aceptaron 13 solicitudes y entre los medios subvencionados se encuentran Gara, Noticias de Álava, Deia, Noticias de Gipuzkoa, Diario Vasco, El Correo, Naiz, Europa Press, Agenciadenoticias.es y Segura Irratia.